

# COMUNICADO ELA-LAB-ASPEM

## GOYO, NORA DARAMAZUE KUTXABANK?

Villalabeitia jauna ez da sindikatuekin biltzen. Ez digu azaldu nahi zein den bere negoziarako plana eta honek izan ditzakeen ondorio larriak. Neurri hauek eragin zuzena izango dute Kutxabanken zuzeneko eta zeharkako enpleguan eta, berriro ere, gardentasuna eta zehaztasuna falta da.

Hala ere, prentsaren bitartez dakigu erakundeko Presidenteak bere kideek (EAEko patronalak) antolatzen dituzten jardunaldietan parte hartzea atsegin duela, bere planak enpresa-munduari aurkezteko.

Baina Kutxabankeko Zuzendaritzak ez digu plana jakinarazi. Egia esan, helburuak eta espero dituen emaitzak bakarrik adierazi ditu, ezertxo ere ez gehiago. Propaganda hutsa. Egintza burutuen politika bat da, eta ELA, LAB eta ASPEM sindikatuak horren aurka gaude.

Itxura guztien arabera, benetako asmoak ezkutatu nahi dira: lantaldea erruz murriztea, bulegoak ixtea, bezeroekiko arreta gutxitzea eta “errentagarritasuna hobetzea”; alegia, bezeroei komisio gehiago, kontsumorako mailegu gehiago, bezeroak sailkatzea, ekonomia produktiboarekiko konpromezua lausotzea edo etetea...

Enpleguaren suntsitzea, prekarietatea, lekualdaketak, lansariak murriztea... Goyok dio gorriak ikusiko ditugula (“*vamos a sudar sangre*”)... ez dira bera eta bere lagunak izango, Kutxabankek bere jatorria eta izaera soziala alde batera uzteko lanean jarraitzen baitute. Euren zereginak eta lan-harremanak estatuko banka handiarekin berdindu nahi dituzte. Azkenengo helburua erakundea burtsara ateratzea da, horrela Kutxabank kapital pribatuaren esku utziaz.

ELAk, LABek eta ASPEMek uste dugu Kutxabankek bere sorrerako arrazoiei men egin behar diela. Hau da, bertako aurrezkoa kudeatzea gizartearen eta euskal sare produktiboaren eskura jartzeko. Finantza-sistema publiko eta sozial baten oinarria izan dadila. Negoziorako Plana beste pausu bat da kontrako bidean.

Kutxabanken likidazioaren aurkako gure jarreraren berresteko, ELA, LAB eta ASPEM Sindikatuok datorren Irailaren 30ean lehen Elkarrateratze bat eramango dugu aurrera, Euskalduna Jauregiaren parean, 12:00etatik 12:30tara, Expansión egunkariaren ekitaldi batekin topo eginez bertan Gregorio Villalabetiak parte hartuko duelarik.

# **COMUNICADO ELA-LAB-ASPEM**